

Uztaila Abuztua Iraila

ONTZIAK

72,5_{kg}

RECICLAJE

Udan, ikastegian ikasle gutxiago egon denez eta Fakultatearen beraren jarduerak behera egin duenez, murriztu egin da sortutako hondakinen kopurua. Aldi honetan, 72,5 kg ontzi bakarrik jaso dira Fakultateko edukiontzi horietan.



PAPERA

50.000_{orri}

KONTSUMOA

Illo beretik, ikastegiaren jarduerak murrizteak irakasleen eta administrazioari langileen jarduerari loturiko baliabideen kontsumoan ere beherakada ekarri du. Irailan, ordea, ikasturtea hasteara batera, normalean baino gauza gehiago inprimatu dira. Guztira, 50.000 orri kontsumitu dira; hori joan den urtean, garai berean, kontsumitutakoa baino gutxiago da, orduko hartan 61.500 orri kontsumitu baitziren.

1.872_{kg}

BIRZIKLAPENA

Urteko hirugarren hiru hilabete, 1.872 kg paper birziklatu dira. Urteko 9 hilabete hauetan, guztira 7.072 kg birziklatu dira; hau da, joan den urtean baino 1.282 kg gehiago. Oso berri ona da; izan ere, orrien kontsumoak behera egin duen bitartean, birziklapenak gora egin du.

EHUAgenda 2030



UPV/EHU estatuko **lehenengo unibertsitatea** izan da goi mailako hezkuntzan 2030 Agendaren eraikuntza eta jarraipen metodologia bat sortzen.

2030 EHUAgenda, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak apirilean onartua, lerrotuta dago unibertsitatearen plan estrategikoarekin, eta diziplinen egitura zatikatua ezbaian jartzen duen zeharkako izaera du. Jarraipenerako adierazle multzo bat du, eta adierazle horien zehaztapenean lagundu dute Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoak (IHOBE) eta EAEko hainbat eragilek.

Ondorengo estekan garapen jasagarriaren aldeko 2030 EHUAgendaren helburuak betetzeko martxan jarri dituen programa eta ekintza guztiak ikus daitezke:

<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/ehuagenda-2030/ekarpenak-eta-ekintzak>

Amazonia: 30.901 baso-sute abuztuan

Abuztuan, 30.901 baso-sute erregistratu ziren Amazonian, 2018an izandakoen halako hiru, hain zuzen ere. Baso-sute horiek gorakada handia eragin dute arnasketa-arazoetan eta ospitaleratzeetan, Brasilen, kearen eraginez.

Brasil, Bolivia eta Paraguain izan diren sute horiek argi adierazten dute anbizio handiagoa izan behar dugula eta aliantza zabal bat sortu behar dugula basoen alde, behar besteko babes eta lankidetzarekin, Amazonia eta munduan zehar kaltetutako gainerako baso eremuak modu egokian kontserbatu eta garatu ahal izateko.

Iturriak: <https://www.bbc.com/mundo/noticias-america-latina-49811380>

<https://cnnespanol.cnn.com/video/incendios-amazonas-humo-salud-ninos-sistema-respiratorio-problemas-brasil-panorama-cnnee/>

https://www.panda.org/es/noticias_y_publicaciones/noticias/?353473/amazoniaonu



Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.berdea@ehu.eus

ZER EGIN DEZAKET?

Dakizunez, irailaren 16tik 22ra bitartean **Mugikortasunaren Europako Astea** egin da, "Ibil zaitez gurekin!" lelopean. Aurten ere, UPV/EHUK ospakizun horretan parte hartu du eta hainbat ekitaldi antolatu ditu **campus** guztietan.

EEEren webgunean zenbait aholku erraz aurki ditzakegu, ahalegin handiegirik egin gabe mugikortasunaren arloan dugun eragina murriztu ahal izateko:


Iturria: <https://www.eve.eus/Eficiencia-y-Ahorro/Consejos-para-ahorrar-energia-en-casa/El-transporte>



01. Hirian, erabili garraio publikoa zure joan-etorriak egiteko eta utzi autoa aparkatuta.



02. Bidaia ertain eta luzeetan, garraio publikoa autoa baino 6 aldiz eraginkorragoa da.



03. Ikuskatu pneumatikoen presioa aldian-aldian, kendu erabiltzen ez dituzun osagarriak (adibidez, auto-parrila), ez eraman alferrikako pisurik, aire girotua neurritik erabili eta ez gidatu abiadura handian. Era horretan, erregaia aurreztearekin batera, segurtasun handiagoz ibiliko zara.



04. Autoa erabiltzea ezinbestekoa bada, kontuan hartu modu eraginkorrean gidatzeko teknikak, martxa luzeak erabiliz eta biraketa gutxiarekin gidatuz.



05. Autoa erosterakoan, aukeratu zure premien arabera eredu, eta erreparatu kontsumo etiketari eta CO₂-aren emisioei, prestazio berberak dituzten autoen artean, A edo B mailako autoa erostea komenigarriagoa da, diru eta energiaren ikuspuntutik.



06. Bidaia laburretan, oinez egin edo bizikletaz baliatu, ekonomikoagoa energia aldetik, gutxiago kutsatzen du eta osasuntsuagoa da.

LARRIALDE KLIMATIKOA: ERAKUSKETA BIZKAIKO CAMPUSEKO BIBLIOTEKAN

"Larrialdi klimatikoa" ekimena da hainbat erakundek, hirik eta unibertsitatek (UPV/EHUK, besteak beste) gertatzen ari den aldaketa klimatikoari prestatu duten erantzuna.

Munduaren egoera larriaren aurrean, Nazio Batuen Erakundeak Klima aldaketari buruzko nazioarteko goi bilera egiten ari da aste honetan. Bertan mundu osoko gobernuak eta enpresaburuak elkartzen ari dira eta zehatz mehatz ezartzeko zein izango den norberaren ekarpena CO₂ren isuria gutxitzeko.

Bizkaiko Campuseko Bibliotekak gai honi buruz galdu ezin duzun liburu erakusketa prestatu du, bizi ari garen egoera puntu ezberdinetatik sakonki aztertzen baitu. Erakusketa zabalik egongo da 2020ko urtarrila arte.

Informazio gehiago: https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteca/-/exposicion_emergencia-climatica